



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2022/23 Denboraldia


19. ZK.DUN ZIRKULARRA

EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEAREN GORAJOTZE- BATZORDEAREN AURREAN (BIGARREN AUZIALDIKO ORGANOA) ERREKURTSOAK IZAPIDETZEA ETA KUDEAKETA-GASTUAK

Euskadiko Futbol Federakundearen Diziplina Araudiaren 115.2 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, lurraldeko federazio-erakundeek hartutako erabakien eta ebazpenen aurka errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, hamar egun balioduneko epean, Euskadiko Futbol Federakundearen Gorajotze Batzordearen aurrean. Hala ere, Diziplina Araudi bereko 115.5 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, eskumena duten diziplina-organoek hartutako erabakien aurka gorajotze-organoan edozein errekurtsio aurkezteak errekurtsogileari urtero zirkular bidez ezartzen den zenbatekoa gordailutzeko betebeharra ekarriko dio, kudeaketa eta izapidetze-gastu gisa. Organo horiek, era berean, erabaki ahal izango dute, dagozkien ebazpenetan, errekurtsogileei betebeharr ekonomiko hori barkatzea, baldin eta errekurtsioak erabat edo zati batean baiesten badira.

Esandakoa betetz, Gorajotze Batzordean aurkezten diren errekurtsioetarako, Euskadiko Futbol Federakundeak zenbateko hauek ezarri ditu 2022/2023 denboraldirako:

- Zelai Futbola Kategoria afizionatuak (emakumezkoak eta gizonezkoak): ...50 €
- Zelai Futbola Gazteen eta Kadeteen Kategoriak (emakumezkoak eta gizonezkoak)25 €
- Areto futbola (emakumezkoen eta gizonezkoen kategoria guztiak) 25 €



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

Ordainketa Gorajotze Batzordearen aurrean egiaztatu beharko da, dagokion errekurtoa aurkeztearekin batera. Errekurtsoari Euskadiko Futbol Federakundearen kontu zenbaki honetan egindako aurretiazko transferentziaren kopia erantsi beharko zaio:

- **Erakundea: Kutxabank - Onuraduna: Euskadiko Futbol Federakundea**
- **IBAN kontua: ES43 2095 0000 7338 3079 4935**
- **Kontzeptua: Gorajotze Batzordea (klubaren izena/kategoria- ebazpenaren data).**

Eskakizun hau ez betetzeak diziplina-organoak errekurtoa aintzat ez hartzea ekarriko du. Organoak, oro har, betebehar ekonomiko hori barkatzea erabaki ahal izango du, osorik edo zati batean baietsitako errekurtsuak dituzten klubei.

Horren berri ematen da, guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

Bilbon, 2022ko urriak 13a.

ALLICA

KEPA ALLICA BILBAO
Secretario General